



ekin eta ekin

JOLASEAN

HAUR HEZKUNTZA ● LEHEN HEZKUNTZA

1. zikloa

Ikastetxe askotan, jolastokia zementuzko zabaldegi hutsa da; bitxia bada ere, eskola batzuetan ezin da pilotarekin ere jolastu. Toki horri atarramentua ateratzea proposatzen dizuegu, plangintza erraza eginez eta jolas tradizional batzuk berreskuratzu.

Jolastokirako errezeptak

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GORPUTZ HEZKUNTZA.
- PLASTIKA.
- LENGOAIA.
- TUTORETZA.
- HIZKUNTZA.

HELBURUAK

- Jolas-ordua hobetzea.
- Jolas eta jostailu tradizionalak berreskuratzea eta beste joko batzuk egiteko gauzak biltzea.

MATERIALAK

- ◆ Harriak, tapoiak, margoak (ahal dela, ekologikoak), zabor artera botatzen diren materialak, egurrezko takoak, klarionak...

Garapena

HASTEKO, jolas-ordurako ideia berriak proposatuko ditugu ikasgelan. Honela plantea daiteke gaia: *Zertan jolasten ziren zure aitona-amonak eta gurasoak, haurtzaroan?*

Informazio hori lortzeko, gutun baten bidez jakinarazi ahal diegu familiei jolas-ordua hobetzeko dugun asmoaren berri, eta, bide batez, haien garaiko jolas edo jokorik gogokoenen zerrenda eskatu.

Jolasen prestaketa ikasgaiaren arabera aldatuko dugu: Hizkuntza orduan, jolasen zerrenda eta arauak idatz daitezke, esaterako; Plastikan, jostailu batzuk presta ditzakegu...

Jolasak egiten hasi aurretik, komenigarria litzateke arduren txandak zehaztea: jolastokira zerbait eraman behar bada, edo garbitzeko eta erabilako gauzak batzeko taldeak antolatu behar badi, adibidez.



Betiko jolas errazak

Lurra margotu

Trukeme edo txintxirrika: eredu eta arau ugari daude.

Twister: MB jostailu-etxeak merkaturatutako modeloaren ordez, margotutako harriak erabil daitezke.

Letren jolasia: letrak laukietan margotzen dira, eta letra horiek erabiliz hitzak osatu etaurrean idatziko ditugu, klarionez.

Antzararen jokoa, partxisa, artzain-jokoa, eskailera...: fitxen ordez, margotutako harriak edo zaramara bota ohi ditugun materialak erabil ditzakegu

—esne edo freskagarrien botilen tapoiak, adibidez— .

Zirkuituak

Metalezko tapoiak, goiko mailetako ikasleen artetik berreskuratutako kotxetxoak edo auto, animalia eta abarren irudiak margotu zaizkien harriak erabil daitezke.

Itua

Itu bat marraztu, zirkuluak kolorez margotu eta puntuazioak idatziko ditugu. Jaurtiketa-lerroa markatu eta, banan-banan, txapak, egurrezko takoak, harriak edo beste-

lako jaurtigaiak botako ditugu iturantz.

Gauzak berreskuratu

Petankak, zibak, tortolosak, kromoak, sehaskatxoak egiteko lokarriak, gomak, soka.

Birlak: litro eta erdiko esne-botilak margotu eta hareaz beteta (edo hutsik) oso aproposak dira bola-jokoan aritzeko.

Igel-toka: hondartzan jolasteko baldeak eta estalakiak, tapoiak edo edontzi-azpikoak erabil daitezke.

Uztaien jokoa egiteko, seinaltzatzeko konoak eta burdin hariz eta kolorez-

ko paperez egindako uztaiak erabil daitezke.

Bibliografia

Departamento de Medio Ambiente, Gobierno de Aragón; Servicio de Medio Ambiente, Ayuntamiento de Zaragoza.

Entantarabintantinculado: juegos en los parques. Zaragoza, 1994.

BARANDIARÁN, J. M. de; MANTEROLA ALDECOA, Ander. **Juegos infantiles en Vasconia**. Labayru Ikastegia. Bilbo, 1993 (353-372. orr.).

BULL, Jane. **El Libro de jardinería**. Molino. Barcelona, 2003.

FERRER SORIA, Isidro. **Piedra a piedra**. Imaginarium. Zaragoza, 2002.

